






Esperimentazioa Kimikan	4. Praktika Iragazketa sinplea eta hutsunearen bidezkoa.	E.U.P./U.E.P. Donostia
<p style="text-align: center;"><u>Materiala</u></p> <p>Inbutu konikoa Buchner inbutua eta kitasatoa Eustoina eta uztai itxia 250 cc-ko prezipitatu-ontzia Iragaz-papera</p> <p style="text-align: center;"><u>Erreaktiboak</u></p> <p>Kloruro ferriko Amoniako</p> <p>Iragazketa: Disolbaturik dauden bi erreaktibo nahasten direnean erreakzio bat gerta daiteke eta, ondorioz sustantzia berriak eratu. Sustantzia berri hauek disolbagarriak ala disolbaezinak izango dira eta azken kasu honetan <u>hauspeakin</u> bat azalduko da.</p> <p>Hauspeatze prozesuaren ondorenekoa, gehienetan, iragazketa egitea da. Horretarako <u>iragazki</u> (filtro) bat beharko dugu, bere funtzioa likidoa pasatzea uztea eta zatiki solidoak jasotzea izango delarik. Kasu bakoitzean tresna egokienak behar dira, eta gehien erabiltzen direnak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inbutu konikoa eta iragaz-papera. • Plaka iragazkorreko krisola (Gooch-krisola). • Portzelanazko Buchner inbutua. <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;">  <p>Inbutu konikoa</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>Buchner inbutua</p> </div> <div style="text-align: center;">  <p>Gooch-krisola</p> </div> </div> <p>Iragazketa sinplea</p> <p>Iragaz-paper karratu bat moztu, bere aldea inbutuaren sakoneraren bikoitza izan behar du. Lau zatitan tolestu. Izkin batetik hasita besteraino arku bat osatuz moztu. Ireki kono itxura lortuz, alde batek hiru zati izango ditu.</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;">  </div> <div style="text-align: center;">  <p>Era konikoan tolesturiko iragaz-papera</p> </div> </div>		


<p>Esperimentazioa Kimikan</p>	<p>4. Praktika Iragazketa sinplea eta hutsunearen bidezkoa.</p>	<p>E.U.P./U.E.P. Donostia</p>
---	--	--

Iragaz-papera inbutuan ipini eta ondoren busti egingo da (Iragatziko dugun likido berdinarekin) eta likidoa beirazko hagatxoaren bitartez isuriko dugu. Ez da inbutuaren erdia baino gehiago bete behar. Iragazkina jasotzeko, inbutuaren azpian prezipitatu-ontzi bat jarriko dugu.


Hauspeakin guztia jasotzeko, prezipitatu-ontzia ur distilatuaren laguntzaz garbituko da eta hauspeakina bera ere bai azkenik, iragaz-paperearen hondoan solidoa jasotzea lortuko dugularik.




Inbutu konikoa



Iragaz-papera tolestua ere erabil daiteke, irudian adierazten den bezala. Tolestuak iragazketa azkarragoa egiten du iragaz-azalera handiagoa bait da.



Esperimentazioa Kimikan	4. Praktika Iragazketa sinplea eta hutsunearen bidezkoa.	E.U.P./U.E.P. Donostia
<p style="text-align: center;">Hutsunearen bidezko iragazketa</p> <p>Teknika honekin, presio beherapen baten bidez likidoaren pasoa behartzen da. Presio beherapena huts-bonbaz ala huts-tronpaz lortzen da. Huts-tresna, Buchner inbutuari ala Gooch plaka porotsuari konektatzen zaio. Iragazkina jasotzen duen ontziari kitasatoa deitzen zaio.</p> <p>Buchner inbutuan iragaz-papera, apur bat bustita jartzen da. Iragaz-papera inbutuaren diametro berdinekoa edo zerbait txikiagoa izan behar du. Ondoren hutsunea aplikatzen da eta iragazi behar duguna pixkanaka botatzen da (erdigunean) inbutuaren paretak ukitu gabe. Iragazketa amaitzean hutsunea pixkanaka kendu (bestela ura kitasatora sartu daiteke) eta ontziko hauspeakina duen papera pintza metalikoen laguntzaz jaso, ondoren erloju-beira batetan ipiniz.</p> <div style="text-align: center;">  <div style="border: 1px solid black; padding: 2px; display: inline-block; margin-left: 10px;">Buchner inbutua</div> </div> <p>Alde esperimentalak</p> <p>0.05 M den kloruro ferriko eta 0.15 M den hidroxido amoniko disoluzioak prestatu. Kloruro ferriko disoluzioaren 20 mL hidroxido amoniko disoluzioaren 30 mL-rekin nahasten dira, ondoren iragatziko dugun hauspeakin gorrista bat eratzten delarik:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Kono eran tolesturiko iragaz-papera erabiliz. b) Tolesturiko papera erabiliz. c) Buchner inbutua erabiliz. <p>Iragazketa-denborak neurtzen eta abiadura erlatiboak kalkulatzeko dira.</p> <p>GALDERAK</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Adierazi 0.05 M den kloruro ferriko disoluzioaren 500 mL eta 0.15 M den hidroxido amoniko disoluzioaren 1 L prestatzeko jarraituriko pauso guztiak. Amoniako disoluzioaren purutasuna %25 eta dentsitatea 0.910 g/mL dira. 2.- Zertarako egiten da iragazketa? Ze material behar da? 		

Esperimentazioa Kimikan	4. Praktika Iragazketa sinplea eta hutsunearen bidezkoa.	E.U.P./U.E.P. Donostia
--	---	---

4.- Praktikako emaitzak:

Iragazketa-mota	Iragazketa-denbora	Iragazketa-abiadura